

35.

Koldo Mitxelena

LITERATURA

LEHIAKETA

2024


8-18 urte bitartekoak

olerkia
ipuina
komikia
bertsoa
mikroipuina
webkomikia



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara

www.donostiaeuskaraz.eus



AURKEZPENA

Koldo Mitxelena Literatur Lehiaketa 35. ediziora iritsi da. 2023-2024 ikasturtea ere oso emankorra izan da eta aurreko edizioetan izandako gorakadari eutsi dio. Aurten guztira 1.273 lan iritsi dira.


Aurten ere, sari banaketaren ekitaldia Udaleko Pleno Aretoan izango da maiatzaren 25ean. Bertan izango ditugu saridunen senideak, lagunak eta irakasleak, udal ordezkariez gain.

Liburuxka honetan 35. edizioan saritutako lanak bildu ditugu, 23 guztira: 5 komiki, 6 olerki, 6 ipuin, 3 bertso eta 3 mikroipuin. Amaieran epaimahaiaren aipamen berezia merezi izan duten lanen zerrenda ere argitaratu dugu, aurten 21 lan, edizio honetan parte hartu duten 21 ikastetxeren izenekin batera.

Aurtengo edizioan parte hartu duzuen guztioi egindako lana eskertu eta bide horretan jarraitzea animatu nahi zaituztet, gaurko ikasleak biharko idazle, zinemagile, ipuin kontalari edota bertsolari izango baitzarete.

Eskertzekin jarraituz, epaimahaikideen (Iñaki Martinarena “Mattin” komikigilea, Beñat Gaztelumendi bertsolaria eta Ana Malagon, Inazio Mujika, Castillo Suarez eta Arantxa Urretabizkaia idazleak) lana nabarmendu nahi dut. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi ikastetxeak eta ikasleak parte hartzera animatzen dituzuen irakasleak.

Donostian, 2024ko maiatzaren 25ean



Jon Insausti Maisterrena
Donostiako Udaleko Kulturako eta Euskarako zinegotzi-ordezkaria

OLERKIAK

1. Uhin Aranburu Garcia (11 urte)

Idea zaparrada

C kategoria

2. Allende Molina Sanchez (12 urte)

Olerki jostariak

C kategoria

3. Ane de Dios Benavente (13 urte)

Barraskiloa

D kategoria

4. Ekhi Urdangarin Galartza (15 urte)

Zure paradisia

E kategoria

5. Izaro Montenegro Urdanpilleta (16 urte)

Poemario

F kategoria

6. Lúa González Capelo (17 urte)

Mundu zoragarri hura

F kategoria

Zure paradisua

Hor zaude, sofan etzanda
burumakur
zurbil-zurbil
hilda zaudela dirudi
ezin zara mugitu ere egin
zure paradisuan baitzaude
atzoko arropa bera duzu
kaleko eskale gaixoen antzera
baina zu okerrago zaude

askoz ere okerrago

Efektu guztiak pasa ondoren
errealitate gogor eta desatsegin honetara buelta
eta hemen nago
ni, zuri begira
nolako ama dudan ikusten
semea axola ez zaion ama
gorroto puntu bat sentitzen hasia naiz
ni hezi beharko ninduen pertsona horrela ikusita
pena ematen didazu,
izugarrizko pena

Halako batean altxatzea lortu duzu,
begietara begiratu didazu
baina ez daukazu indarrik
ezta "egun on" sinple bat esateko ere
alferrik da zurekin hitz egiten saiatzea
zure paradisuan baitzaude oraindik
ez didazu jaramonik ere egin
komunera joan zara zuzenean
balantzaka, alde batera eta bestera
ezin zara zutik egon

Komuneko atean nago
zuri begira
dena bota duzu
ez zaizu ezertxo ere geratzen barnean
oka egite horretan zure izatea hustu da
zerbait esaten saiatu zara
baina ezin duzu
eta dena droga zikin horien erruz
baita zure erruz ere
zuk duzulako errua, guzti guztia.

Non ote dago?
Non ote dago nire ama?
komunetik behera joan da
pentsamendu eta emozio guztiak
bertatik joan zaizkio
ez zaitut ezagutu ere egiten
jada ez zara lehengo berbera
beste bat dirudizu
zeharo ezezaguna
ez dakit ama izatera iritsi zaren ere
agian bai
baina ez duzu merezi
ezta inoiz mereziko ere

KOMIKIAK

1. Martin Almandoz Intxauspe (9 urte)

Martin Arrantzaleak

B kategoria

2. Markel Lasa Miranda (12 urte)

Topatzen dut bidea

C kategoria

3. Sofia Crespo Baragan (12 urte)

Maskara Magikoak

D kategoria

4. Eric Vladu (16 urte)


Erlojuaren kontra

E kategoria

5. Nora Sanchez Etxart (17 urte)


Azken sandwicha


F kategoria



ERLOJUAREN

KONTRÁ





ZER
EGINO DUGU?

ZER?!
10 MINUTU?!

NESKAK,
GERRIKOARI
HELDU...

Hau...




HIL EGINGO
GARA!!

PARETA DAUKAGU
AURREAN!

BUM!

NESKAK!



"BERRI ONAK!!"

NAHASTU GARA!
GRABAKETA BIHAR
DA!

NIRE HANKA EZ DA
BIHARKO SENDATUKO...

NORBAITEK HEMENDIK
ATERAKO?
ZERBAIT SARTU ZAIT BEGIAN □ □ □

BERTSOAK

1. Asier Oskila Etxegia (10 urte)

Bidaia

B kategoria

2. Hodei Pineda Labaka (10 urte)

Ume arruntaren koplak

C kategoria

3. Lexuri Legorburu Arrieta (16 urte)

Natura

E kategoria

Natura

1

Begirada bat bota
zure ingurura
kezkatzeko moduan
daukagu natura,
Ama Lurrak hartu du
hilkutxa itxura
asko hitzegiten da
beraren kontura
nahiz bere osasunak
ez digun ardura!

2

Itsasoari begira
nago adi-adi,
plastikoa ikusten
da nonahi ugari,
arrainek hori dute
egungo janari
gure ahoak hartzen
du gero bazkari
mesede egiten dio
gure sabelari.
Merkurioa doa
geroz ta gorago
mendi eta ibaiak
lainotuz zeharo
suteak pizten dira
logikoa, klaro.
Ura laster ez dugu
izango oparo
petroleoa edango
dugu ta akabo!

3

Zementuzko Gasteiz
omen "Kapital Green"
Zaldibarren zaborra
da "Verter Recycling"
horrela dena berde
ponpox ta atsegin
zerbait ezkutatzeko
ingeleseiz hitz egin.
Euskaraz dena ulertzen
ote da desberdin?

4

Zero kilometroak
piztu dit arreta
janariak ematen
ditu mila buelta
hamburgesa yankia
ederra, puñeta!
Nahiz jakin ez duela
Euskal etiketa
ezer baino hobe hezurrik
gabeko txuleta.

5

Ta beraz urtzen ari
zaigu Antartida
arropa metatu da
zeruko neurria
naturak ezin jasan
du marka hau, tira.
Horretarako hemen
mezu bat begira:
kontsumoa gutxitu
dezagun, aski da!

IPUINAK

1. Danel Ferrer Sarria (9 urte)

Aimar eta azeria

B kategoria

2. Uhin Aranburu Garcia (11 urte)

Bakarrik

C kategoria

3. Telmo Bilbao Etxeberria (13 urte)

Kaldo Mitxalenarako ipuina

D kategoria

4. Unai Agudelo Burgoa (15 urte)

Arrazoirik gabe

E kategoria

5. Nerea Vidal Arrieta (18 urte)

Pausoz pauso

F kategoria

6. Gorka Pastor Daza (18 urte)

Behin eta berriro

F kategoria

Kaldo Mitxalenarako ipuina

Bazen behin Belmo izeneko mutiko bat, 13 urte zituen eta Arantzazuko Aita BHI eskolara zihoan. Eskolan Kaldo Mitxelena izeneko lehiaketa baterako ipuin bat idaztea eskatu zioten. Asteak igaro ziren eta Belmok ez zekien zeri buruz egin ipuina, epea iritsi zen arte.

Eskolarako bidea amaiezina egin zitzaion, oso urduri zegoen ipuina idazten hasi ere ez zelako egin. Baina bat-batean ideia bat bururatu zitzaion, inoiz huts egiten ez zuen teknika: **AITZAKIA**. Erabaki zuen bidean ibiliko zela **AITZAKIA** pentsatzen. Azkenean bide luze horren ondoren ikasgelara iritsi zen eta irakasleak ipuinagatik galdetzean iritsi zen **AITZAKIA**ren ordua.

Belmo aitzakia kontatzen hasi zen eta zera esan zuen: "Hara irakasle andrea, azalpen oso erraza dauka. Nik lana eginda nuen eta zin dagizut oso istorio polita zela, baina, behin kalean nenbilenean lasai-lasai, bat-batean estropezu egin nuen. Estropezu egitean nire mugikorra erori egin zen eta nire ondoan zegoen parke bateko txirristatik jeitsi eta hegan atera zen. Zabuko umeak nahigabe ostikada bat eman zion eta taberna bateko aulki batean errebotatu ondoren mahai baten gainera erori zen. Mahai horretan zegoen gizonari mugikorra emateko eskatu nion eta, berak, zegoen lekutik bota egin zidan. Mugikorrak 186 graduko traiektoria perfektua zuen, nire eskuetara zetorren zuzenean, ez zegoen haizerik, beraz, ez zen traiektoria aldaketarik izango, eta nire mugikorra jada dastatu ahal nuenean uso bat igaro zen nire aurretik eta mugikorra lapurtu zidan. Bere atzetik ibili nintzen baina azkenean ihes egin zidan. Kontua da mugikorrean nuela nire lan guztia, eta, horregatik ez daukat eginda" Azkenean Belmok ere ez daki nola, baina irakasleak sinetsi egin zion eta epea luzatu zion.

Belmok uste zuen ez zela arazorik izango eta oraingoan bururatuko zitzaiola istorioren bat, baina berriro ere ez zitzaion ezer bururatu. Oso urduri zihoan eskolarako bidean ez zuelako istorioa egin, bat-batean bururatu zitzaionean behin funtzionatu bazuen berriz ere funtzionatuko lukeela, eta azkenean **AITZAKIA** erabiltzea erabaki zuen, bide guztia iraun zuen **AITZAKIA** pentsatzen eta azkenean iritsi zen ordua.

Irakasleak ipuinagatik galdetu zion eta berak zera esan zuen: "Irakasle andrea, kontua da ez daukadala ipuina hemen, baina eginda dago. Kontua da nire ipuina hain zela ona non gobernuak 33 espioi kontratatu zituen nire ipuina bereganatzeko. Espioiak nire etxera etorri ziren eta niri eraso egiten hasi ziren. Bati PAM eman nion eta KO utzi nuen, beste bati PUM eman nion eta GAME OVER utzi

nuen eta azkenari KATAPLUM egin nion eta eskaileratik behera erortzean ``el karma`` esan nion. Baina gehiegi ziren, gero eta nekatuago, gero eta indargabetuago sentitzen hasi nintzen, esan dezaket ez nuela galdu oso indartsua naizelako, baina nekeagatik konortea galdu nuen. Espioiek nire aurka ezin zutela ikusita konortea galdu izana aprobetxatu zuten eta ipuin zoragarri hura lapurtu zidaten. Beraz horregatik ez dut ekarri`` Berriz ere, Belmok ez daki nola baina irakasleak sinetsi egin zion eta epea berriro ere luzatu zion.

Belmo konfiatu egin zen eta ohartu zenerako epearen eguna gainera etorri zitzaion eta ez zeukan istorioa egina. Hortaz, oraingoan eskolarako bidean hasieratik pentsatuta

zeukan plana, berriz ere **AITZAKIA** erabiltzera zihoan. Eskolara iristean irakasleak galdetu eta berriz ere **AITZAKIA** bat kontatu zion.

Zera esan zuen:``Irakasle andereñoa, kontua da ipuina eginda neukala eta aurreko bi aldietan gertatutakoa kontuan izanda erabaki nuen ipuina bankuan gordetzea, baina arazo bat izan zen. Nik ipuina gordetako bankuan oso plano garrantzitsu batzuk zeuden eta horregatik terrorista batzuk bankua lapurtzera joan ziren. Bankura iritsi eta bankuko zuzendariari plano horiek eskatu zizkieten, baina planoak hain ziren garrantzitsuak bankuko zuzendariak ere ez zekiela non zeuden. Terroristak planoen bila hasi ziren, komunetan bila ibili ziren, baita kaxa blindatuan eta langileen bulegoetan ere, baina ez zituzten aurkitu, beraz, haserretu eta bonba bat jarri zuten bankuan banku guztia lehertu zen, eta nire ipuina ere lehertu egin zen. Horregatik ez dut ekarri.`` Irakasleak berriz ere epea luzatu zion eta Belmok eskerrak eman zizkion.

Belmo asteburuan jolasean aritu zen eta azkeneko egunean konturatu zen ipuina ez zuela egin, eta ez zeukan ideiarik, baina, bat-batean otu zitzaion bere **AITZAKI**ei buruzko istorioa egitea. Hurrengo egunean ez zuen **AITZAKI**arik prestatu behar izan. Handik hilabete batzuetara lehiaketa irabazi zuen.

Sarituen zerrenda

Mota	K	Egilea	Izenburua	Ikastetxea
Bertsoa	B	ASIER OSKILA ETXEGIA	BIDAIA	Zurriola
Bertsoa	C	HODEI PINEDA LABAKA	UME ARRUNTAREN KOPLAK	Zurriola
Bertsoa	E	LEXURI LEGORBURU ARRIETA	NATURA	Arantzazuko Ama BHI
Ipuina	B	DANEL FERRER SARRIA	AIMAR ETA AZERIA	La Salle-San Luis
Ipuina	C	UHIN ARANBURU GARCIA	BAKARRIK	Orixo
Ipuina	D	TELMO BILBAO ETXEBERRIA	KALDO MITXALENARAKO IPUINA	Arantzazuko Ama BHI
Ipuina	E	UNAI AGUDELO BURGOA	ARRAZOIRIK GABE	La Salle-San Luis
Ipuina	F	NEREA VIDAL ARRIETA	PAUSOZ PAUSO	Axular
Ipuina	F	GORKA PASTOR DAZA	BEHIN ETA BERRIRO	Santo Tomas
Komikia	B	MARTIN ALMADOZ INTXAUSPE	MARTIN ARRANTZALEAK	Axular
Komikia	C	MARKEL LASA MIRANDA	TOPATZEN DUT BIDEA	Orixo
Komikia	D	SOFIA CRESPO BARRAGAN	MASKARA MAGIKOAK	La Salle-San Luis
Komikia	E	ERIC-ANDREI VLADU	ERLOJUAREN KONTRA	Arantzazuko Ama BHI
Komikia	F	NORA SANCHEZ ETXART	AZKEN SANDWICHA	Zurriola
Mikroip.	D	PERU BELOKI URREIZTI	ZOMORROA	Lauaizeta BHI
Mikroip.	E	EDER BEA LERTXUNDI	OROITZAPEN ODOLTSUAK	Zurriola
Mikroip.	F	OIHANA FERNANDEZ POLO	ILUNA ETA ARGIA	Zurriola
Olerkia	C	UHIN ARANBURU GARCIA	IDEIA ZAPARRADA	Orixo
Olerkia	C	ALLENDE MOLINA SANCHEZ	OLERKI JOSTARIAK	Zurriola
Olerkia	D	ANE DE DIOS BENAVENTE	BARRASKILOA	Lauaizeta BHI
Olerkia	E	EKHI URDANGARIN GALARTZA	ZURE PARADISUA	Arantzazuko Ama BHI
Olerkia	F	LUA GONZALEZ CAPELO	MUNDU ZORAGARRI HURA	Antigua-Luberri BHI
Olerkia	F	IZARO MONTENEGRO URDANPILLETA	POEMARIO	Antigua-Luberri BHI

Aipatuen zerrenda

Mota	K	Egilea	Izenburua	Ikastetxea
Bertsoa	B	ALEX GOÑI MENDIZABAL	IKASTOLA EZ DA BEHAR	Zurriola
Bertsoa	C	JUNE ETURA ZUBELDIA	URTAROAK	Zurriola
Bertsoa	E	ONEKA SOLANA DE PEDRO	PORRONTXOEN BUKAERA	Lauaizeta
Bertsoa	F	HODEI ARTETXE GOLDARATZENA	NERABEARENK	Antigua-Luberri BHI
Ipuina	B	IZARO EIZMENDI GOROSTIDE	AUSTRALIAKO ABENTURA	Zurriola
Ipuina	B	JON ANDER PEREZ CASTILLO	ALTXORRAREN BILA	Ibai
Ipuina	B	UNAI ZUMETA HERRERA	MARKEN ISTORIOA	La Salle-San Luis
Ipuina	C	MADDI DE MIGUEL INSAUSTI	HIRU AITONAK	La Salle
Ipuina	C	NORA ARRATIBEL REZABAL	JONEREN GABONAK	Orixo
Ipuina	D	ANDREA LARRUSKAIN PEREZ	KURTSO HARRIGARRI BAT	La Salle
Ipuina	D	GARAZI UBARRETXENA REKARTE	GAUR OTE?	Arantzazuko Ama BHI
Ipuina	E	MADDI OTAEGI ARRATIBEL	FANTASIAZKO BASOA	Arantzazuko Ama BHI
Ipuina	E	PAULA ERASO ARTOLA	EZINEZKOA DA	Zurriola
Komikia	B	IBAI ACHA CUESTA	ZORTE TXARREKO MARRAZOA	Axular
Komikia	C	ELAIA CABALLERO MATILLA	IZARREN BILA	Herri Ametsa
Komikia	E	AMAIA AUSIN SARASUA	FLYING KICK	Zurriola
Komikia	F	CARLOTA CARCIA MARTIN	MAITEREN GORPUTZA	Zurriola
Mikroip.	D	IBAI GONZALEZ GARCIA DE ALBENIZ	INFINITOAREN SORRERA	Herri Ametsa
Mikroip.	D	IZARO JAUREGI MORAN	EZKONTZA	Lauaizeta
Mikroip.	F	ISELA LARRAINZAR ILUNDAIN	ZU ETA NI	Zurriola
Olerkia	D	ALAIN INTXAUTI GONZALEZ	BIZITZAREN TRENA	Lauaizeta

35. edizioan parte hartu duten ikastetxeen zerrenda

Aitor Ikastola
Altza BHI
Amara Berri Ikastetxea
Antigua-Luberri BHI
Arantzazuko Ama BHI
Axular Lizeoa
Donostiako Salesiarrak
Eskibel Ikastetxea
Herrera Ikastetxea
Herri Ametsa Ikastola
Ibai Ikastola
Intxaurrondo Ikastola
La Salle Donostia Ikastetxea
La Salle San Luis Ikastetxea
Lauaizeta Ikastola BHI
Orixe Ikastola
Mundaiz Ikastetxea
Santo Tomas Lizeoa
Usandizaga-Peñaflorida BHI
Zubiri-Manteo BHI
Zurriola Ikastola



euskaraz BARRA // e // BARRA

 Ikur honek euskara erabiltzeko aukera bermatzen dizu



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara